

«BAT» bi

Artikuluak berak irakurtzea eta hausnartzea bezalakorik ez dagoela berriro azpimarratu ondoren, ale honetan aurki daitezkeen lanen aurkezpen laburra egitea irakurleari onuragarri izan dakiokelakoan datoz aintzin-lerro hauek.

Bigarren «BAT» honetan, bidezko iruditu zaigunez, Lurraldetasunaren arazo nagusiari buruzko oinarri batzuk eskaini nahi izan ditugu. Eta horretarako ekarri ditugu hona bi lehenengo lanak.

Laponce-ren *Langue et Territoire* liburu mamitsutik hartutako kapitulua, batetik, bere horretan hartu, eta euskarara itzuli dugu. Ezagutza zabaleko jakintsua Lurraldetasunaren apostolu bihurtua da jadanik. Eta, gaingiroki bederen, berorren eritziak euskaltzaleei jakin eraztea guztiz egokia dela iruditu zaigu.

Bide beretik, eta Lurraldetasun hertsiaaren aldeko borrokan Belgikako flandretarrak munduko aitzindariak izanik, gatazka horren aurkezpena

egin dugu ale honentzat; Voeren-Fourons eskualde liskartsuan gertatutako tirabira adierazgarriak bereziki azalduz.

Ale honen ardaztat, ikus daitekeenez, "Txepetx"en elkarrizketa luzea dakargu. Jose Maria Sanchez Carrion-en tesia ezagun xamarra denez, gure irakurlerik gehienek ez dute izkribu hau zehazki jarraitzeko eta ulertzeko arazo larririk izango. "Txepetx"en ideia nagusiak eta hizkera berria ongi menderatzen ez dutenek, berriz, artikulu funtsezko hau zehazki konprenituko badute, irakaslearen teoriarejadanik.

E.H.E.en kasua ere ukitzen du "Txepetx"ek; hasierako bultzaldi esperantzarri hura gogoratu; baita ere gero jasan zuen beherakada ezaguna, eta berau soziolinguistika-teoria sendo baten eskasiari leporatuz (hein batez egia izan daitekeena, zalantzarik gabe). Hala ere, xuxen asmatu zuten bidea flandretar abertzaleek teoria osorik gabe; eta, berriro gugana bihurtuz, beste herri-mugimendu batzuk ere antzeko beherakada ezagutu dute azken urteotan, baita hizkuntzaren alorretik at ere. Baina "Txepetx"en oharrek beti merezi dute arreta berezia.

Beste muturrean orain (alegia, hartutako hizkuntz erabakien emaitzen neurketarenean) guztiz beharrezkoak dira ale honetan ematen diren euskararen erabilpenari buruzko datu-bilketak. Lortu diren emaitza enpiriko horiek, ikertzaileak beste zehaztapen batzuren arabera nahiago balituzke ere (bikoteen, hirukoteen eta laukoteen erabilpen-kopuruak berezita ezagutzea, adibidez), oso baliagarri izango zaizkio; eta, jakina, azterketa sakonagorik ere bilduko dute.

Asmo horretan gaituzue, hain zuzen. Ondoko aleetan emaitza horietara itzuliko gara, euskararen egoera ahalik eta hobekienik ulertzen eta azaltzen saiatuz. Lehenengo begirada bat emanda, dena dela, eta irakurle arruntak soma dezakeenaz bestaldera, gaur egun ditugun ezaguera-mailak ezagutu-ta, dugun ezaguera-maila horren hanpurusa eta ustela kontutan hartuz; eta giroan dagoen hipo-diglosia azkarra ezaguturik, zifra horiek «normal» xamar zaizkigu, zoritxarrez.

Pilartxo Etxeberria irakasleak, berriz, U.P.V.ko egoeraren diagnosi zehatza egin digu bere artikuluan bi hizkuntza ofizialen arteko desorekari buruz. «Euskara Batzordea»n luzaz saiatu, eta «Ertza» hautagai-zerrendan «Euskara-Errektoreorde» gisa aurkeztua, inor gutxik egin zezakeen egoera horren azalpen hobe eta seguruaragorik.

Udalerrri mailako plangintzaren esparruan E.K.B.k prestatu duen lana euskaltzaleen artean ezaguna bada ere, lagungarri gerta dakieke esparru honetan euskararen alde zerbait burutu nahian ari diren guztiei. Eta beste alorretan plegu horretako plangintzaren bat prestatzerakoan ere, oso onuragarri gerta daiteke.

Bibliografi saila dator azkenik.

Beharrezko jo dugu —Odrizolaren lumaren eskutik— hainbat lanen berri ematea. Iñaxio Agirre-ren artikulu mamitsuak (A.E.K.ren aldizkarian ‘ahantzita’ pentsa dezake norbaitek) hedapen handiagoa merezi luke (ELE-ko orrialdeetan argitara diren beste lan interesgarri batzuk bezala); euskararen irakaskuntzatik at ere bait du bere garrantzia. Soziolinguistika-Mapa ofizialari ere aipamen bat eskaini dio Odrizolak zenbaki honetan eta sarkonkiago aztertuko da ondokoetan. Urrutia lege-gizonaren azterketa juridikoak, aurki liburu berezi batez osaturik, zabalketa behar du gure artean. Amaitzeko, azkenik, Koldo Zuazo-ren Tesi bikainaren aurkezpen laburra egiten du; Euskara Batuaren prozesuaz gaur arte dudarik gabe egin den ikerlanik mardulena eta osoena denaren segurantzian.

Era berean, Ninyoles-en liburu zaharraren aurkezpena egoki dator; gazteagoek ez bait dituzte, beharbada, frankismo-amaiera hartan gidari bihurtu ziren Ninyolesen lanak ezagutu.

Zinez, «BAT» hau kontsulta-lana izan dakieke euskaltzaleei. Eta maila hori lortu duelakoan eskaintzen diogu Euskal Herri osoari.

“Txillardegi”